

balmaseda

Ayuntamiento**Udala**

AURKEZPENA - HISTORIA

PRESENTACIÓN - HISTORIA

Balmaseda Bizkaiko lehenengo hiribildua izan zen; Lope Sánchez de Mena jaunak, Bortedoko jaunak, 1199an lehenengo foruak eman zizkionetik. Enkarterriko hiriburua da eta Gaztela eta Leonera sartzeko Euskadiko atea; beti izan da guztiontzako harrera-lekua.
Galtzada erromatarra eta artilearen ibilbidea –Balmasedan zuen aduanetako bat– hiribilduak komunikaziorako lotune gisa izan duen garrantziaren aztarna dira.
Gaur egun, Balmasedako hiribilduak Erdi Aroko egitura mantentzen du, eta horrek berezi egiten du. Urteek aurrera egin badute ere, oso ondo mantentzen da, eta biztanleek oso ondo zaintzen dute; bertako kaleak, kantoiak eta kale estuak zeharkatzeko xarma eta plazera mantendu ditu.
Hiribilduak ondare garrantzitsua du, besteak beste: Zubi Zaharra (XIII. mendea); Santa Clarako monumentu-multzoa (XVII. mendea); Horkasitas Jauregia, antzinako Errege Aduana (XVII. mendea); San Juan del Moral eliza (XV. mendea); San Severino eliza (XV. mendea); udaletxea (XVIII. mendea); Indianoen etxeak (XIX. mendea), etab.

Balmaseda fue la primera villa de Bizkaia desde que D. Lope Sánchez de Mena, Señor de Bortedo, le otorgó sus fueros en 1199. Capital de Las Encartaciones y puerta de Euskadi con Castilla y León, ha sido siempre un lugar de acogida y tránsito.
La calzada romana y la ruta de la lana, que tenía en Balmaseda una de sus aduanas, son un vestigio de la importancia que ha tenido la Villa como nudo de comunicación.
Hoy, la Villa de Balmaseda aún conserva su estructura medieval que la hace singular. Su ejemplar conservación, tras el paso de los años y el mimo de sus habitantes, ha preservado el encanto y el placer de recorrer sus calles, cantones y callejas.
La Villa cuenta con un importante legado patrimonial, resaltando su Puente Viejo (s. XIII); el Conjunto Monumental de Santa Clara (s. XVII); el Palacio de Horkasitas, antigua Aduana Real (s. XVII); la Iglesia de San Juan del Moral (s. XV); la Iglesia de San Severino (s. XV); la Casa Consistorial (s. XVIII); las Casas de Indianos (s. XIX); etc.







NATURALEZA







NATURA

Balmasedak naturaren berdetasuna zoko guztietatik arnasten du. Erliebe menditsuak hiribildua inguratzen du eta Kadagua ibaiak zeharkatzen duen haran estua dauka.Mendiek, basoek eta ibaiek bizitza eta kolorea ematen diote Balmasedaren natura ingurunearI. Paraje paregabeak ditu, paseoan edo bizikletan ibiltzeko, aire garbia arnasten dugun bitartean; bost zentzumenak pizten dira.
Hariztiak, artadiak, gaztainadiak, lizardiak eta haltzadiak dira baso-masa nagusiak; horietatik galdu eta naturaz gozatuko dugu. Hiru lizar loredun (Fraxinus ornus) baso nabarmendu behar dira, Euskadin bakarrak direlako, Retaoko Hurriztia eta Zoko Maitean dauden zuhaitz bereziak, besteak beste, Bizkaiko haritzik lodiena –6,20 metroko perimetroa du– eta zenbait sekuoia luze (Sequoia sempervirens eta Sequoiadendrum giganteum).
Balmasedan egiten ari den baso-kudeaketa jasangarria erreferente esanguratsu bilakatu da sektorean. Oso emaitza interesgarriak ari dira lortzen, ekoizpen handiagoekin eta zurezko kalitate hobeekin.
Kolitza mendia eskualdeko tontorrik garaiena da, eta egunero joaten dira bertara hainbat eta hainbat mendizale eta txangozale. Mendekoste aurreko larunbatean eta Mendekoste astelehenean ospakizun-egunak dira mendia oinez igo nahi duten gazte eta helduentzat. Bidearen erdian, "La Porqueriza" jolas-eremua dago, eta, bertan, eskualdeko naturak eskaintzen duen natura-paisaia bikainaz goza daiteke. Kolitza urtarrilean ere bilera-leku bilakatzen da, San Sebastian eguna ospatzeko, eta abuztuan, San Roke.
Kolitza mendiak 879 m ditu, eta Bizkaiko bost deiadar-mendietako bat da. Horietan sua pizten zen eta adarrei soinua eragiten zitzaien, Biltzar Nagusiak deitzeko, bai eta Avellanedako biltzarrak deitzeko ere.
Balmasedak fauna aberatsa du, besteak beste, bisoi europarra (Mustela lutreola) –galzorian dagoen espeziea–, igaraba (Lutra lutra), baso-igel iberiarra (Rana iberica), sai zuria (Neophron percnopterus), zikoina (Ciconia ciconia) edo Schreiber muskerra (Lacerta schreiberi).
Kadaguako goiko tarteko uretan amuarrain arrunta dago (Salmo trutta).

Balmaseda respira el verde de la naturaleza por cada rincón. Un relieve montañoso rodea la Villa y cuenta con un estrecho-valle surcado por el río Kadagua.
Montañas, bosques y ríos llenan de vida y color el entorno natural de Balmaseda. Parajes únicos para pasear o montar en bicicleta mientras se disfruta del aire puro y se estimulan los cinco sentidos.
Robledales, encinares, castañares, fresnedas y alisedas son las principales masas boscosas por las que perderse y disfrutar de la naturaleza. Destacan tres bosques de Fresno florido (Fraxinus ornus) únicos en Euskadi, el Avellanar de Retao, y los árboles singulares presentes en el Zoko Maitea, entre los que se encuentran el roble más grueso de Bizkaia con 6,20 m de perímetro y varias secuoyas (Sequoia sempervirens y Sequoiadendrum giganteum).
La Gestión forestal sostenible que se está realizando en Balmaseda se ha convertido en referencia significativa en el sector. Se están consiguiendo resultados muy interesantes con mayores producciones y mejores calidades de madera.
El monte Kolitza se erige como la cumbre más alta de la zona y recibe cada día la visita de numerosos montañeros y excursionistas. El sábado anterior y el mismo lunes de Pentecostés sirve de celebración para jóvenes y adultos que deseen subir a pie el emblemático monte. A mitad del camino se puede visitar el área recreativa "La Porqueriza" y disfrutar del hermoso paisaje natural que ofrece la naturaleza de la comarca. El Kolitza también se convierte en punto de reunión en enero, celebrando San Sebastián, y en agosto, con la festividad de San Roque.
El monte Kolitza de 879 m. es uno de los cinco montes bocineros de Bizkaia. En ellos se encendían hogueras y se hacían sonar bocinas para convocar a Juntas Generales, además de para las propias juntas de Avellaneda.
Balmaseda tiene una rica fauna entre la que destacan el visón europeo (Mustela lutreola), especie en peligro de extinción, la nutria (Lutra lutra), la rana patilarga (Rana iberica), el alimoche (Neophron percnopterus), la cigüeña blanca (Ciconia ciconia) o el lagarto verdinegro (Lacerta schreiberi).
En el tramo alto del Kadagua habita sus aguas la trucha común (Salmo trutta).

URTEROKO ZITAK - *CITAS ANUALES*

PASIO BIZIDUNA - *PASION VIVIENTE*

Jesusen azken orduak antzeztен dira, gurutzilтzaketaren aurrekoak, Calvario mendian. Egile batzuek diote 1480an hasi zela ohitura hau.
Gaur egun, 700 pertson inguru dira antzezpenaren protagonista. Ekitaldi horiek, prozesioekin batera, Ostegun Santuan (arratsaldean eta gauean) eta Ostiral Santuan (egunean zehar) egiten dira.

Se escenifican las últimas horas de Jesús antes de su crucifixión en el monte Calvario. Algunos autores datan sus orígenes en 1480. En la actualidad, cerca de 700 personas son los protagonistas de esta representación. Estos actos, junto a las diferentes procesiones, se celebran el Jueves Santo (tarde y noche) y el Viernes Santo (a lo largo de todo el día).



ERDI AROKO AZOKA - *MERCADO MEDIEVAL*

Bidegurutzea, igarobidea, baina, batez ere, kulturen amalgama; maialtzaren bi egunez, Balmasedak Erdi Aroko ohiturak berreskuratzen ditu. 1999an hasi zen egiten; orduan ospatu zen hiribilduaren VIII. mendeurrena.
Jende asko bertaratzen denez, Erdi Aroko Azoka honek Euskadiko kultura-eskaintzan leku garrantzitsua du. Antzezle, juglare, komiko, trobalari, buruhandi, ekilibrista eta beste hainbati esker, urtero ikuskizun honetaz gozatzen dugu.

Encrucijada de caminos, lugar de paso, pero sobre todo de amalgama de culturas, durante dos días del mes de mayo, Balmaseda, recupera el sabor de la más pura tradición del Medievo.
Tiene su origen en 1999, fecha en que se conmemora el VIII centenario de la fundación de la Villa.
Su puesta en escena y la asistencia de gran cantidad de gente ha permitido que este Mercado Medieval se constituya en un hito de la oferta cultural del País Vasco. Teatreros, juglares, cómicos, trovadores, cabezudos, equilibristas, acróbatas y un sinfín de seres hacen disfrutar cada año de este espectáculo.




SAN SEVERINO (putxeren nazioarteko txapelketa)

SAN SEBERINO (concurso internacional de putxeras)

Eltzean Balmasedako ohiko eltzekoa egiten da, babarrunak, urdai, txorizo, saihets eta odolkiarekin. Txapelketa gastronomiko garrantzitsua egiten da San Seberino herriko jaietan, urriaren 23an.
Putxerak Balmaseda-La Robla (León) trenbide-lineaan du jatorria. Chubesqui delako berogailu txikia zen, trenean eltzekari gozagarriak egin eta, jakina, bero jateko aukera ematen zuena. Aparatu hori makinatik ateratako lurrunaren bidez zebilen.
Trenean lan egiten zuten gainerako langileek, aurreko aldetik heltzen zitzaien usain gozoaren eraginez, beren sistema sortu zuten, landare-ikatzez berotzen zen putxera.

En la putxera se elabora un cocido popular balmasedano a base de alubias, tocino, chorizo, costilla y morcilla. Se celebra un importante concurso gastronómico durante las Fiestas patronales de San Severino, el día 23 de octubre.
El origen de la putxera se remonta a la línea de ferrocarril Balmaseda-La Robla (León). Era una pequeña estufa chubesqui, que permitía elaborar suculentos cocidos en el tren y, por supuesto, comer caliente. Este artefacto funcionaba con el calor del vapor que se extraía de la máquina. El resto del personal que trabajaba en el tren, incentivado por el delicioso aroma que llegaba de la parte delantera, idearon su propio sistema, la putxera de carbón vegetal.



IBILBIDEETAN

Urteko edozein sasoi da egokia Balmaseda udalerrian dauden altxor naturaletako asko ikusteko. Hiribilduak ibilbide ugari eskaintzen ditu bere ingurunean, ondare garrantzitsua ezagu-tzeko.

Bidexkak ("Ibiltari, ez dago biderik…")

Informazio gehiago:

GR-123. Etapa: Balmaseda-Gordexola. Distantzia: 21,52 km.
GR-123. bidexka Bizkaiko buelta izenez ezagutzen da. Etapa hori Balmasedan hasten da eta Celadilla mendilerroraino doa; bertatik, Enkarterriren, Mena haranaren eta Aiala haranaren panoramika ikaragarria ikusiko dugu. Ibilbidea, jarraian, Ayega ibaira jaitsi eta ibaiertzaren ondotik doa, erriberako basoaren gerizpe freskoaren azpitik. Pinudietatik gora egiten da tarte batean eta, ondoren, igotzearI utziko diogu, berriro, Herrerias ibaira heldu arte; bertan, Gordexolako jauregi eta jauretxeetara hurbilduko gara.
GR-123. Etapa: Balmaseda-Kolitza. Distantzia: 6,07 km.
San Severino elizatik, udaletxearen atzeko aldetik, Pandozales auzora joan behar dugu. Ondoko baserriak, txakolin mahastiak eta San Isidro Nekazariaren ermita igaro ondoren, igotzen jarraituko dugu, marka zuri eta gorriei jarraiki, koniferoen artean, tontorrean ermita duen lekuraino. Tontorraren azpian, udal-aterpetxe batek ateak irekitzen ditu asteburuetan.
GR-281. Etapa: Bolunburu-Traslaviña. Distantzia: 21,11 km.
Bolunburuko jolas-eremutik, Zallan, irten eta Balmasedako hiribilduraintz doa; La Herrera auzoa eta La Mella monumentu-multzoa zeharkatzen ditu. Kolitzara eramango gaituen bidetik gora joango gara. Igotzen arI garela, La Porquerizarantz desbideratuko da bidea. Jolas-eremu horretatik, pista bat irteten da, eta, hortik, La Garbeako –Enkarterriko balkoia– tontorrera iritsiko gara. Gune horretatik, ibilbidea beherantz doa, Geltokira eta Traslaviña auzora. Ibilbidearen zati bat Donejakue bide zaharrarekin lotzen da.
Ibilbidea: La Herrera-La Encartada (Donejakue bidea). Distantzia: 5,80 km.
Hau baseo polita da, Kadagua ibaiko errriberetatik egiteko; hiribildua zeharkatzen du eta, gainera, ibaian gora doa Boinas "La Encartada" fabrikaraino, eta ibaian behera, bidegorritik, La Herrera auzoraino; bertan, Terreros dorretxea, Urrutiatarren jauregia eta eliza… daude.

BTT ("Hartu mendiko bizikleta eta…")

Informazio gehiago:

BTT 1. Distantzia: 16,03 km. Maila urdina
Hiribilduari buelta zirkularra ematen dio, hegal baxu eta ertaineko pistetatik; landa-auzoak eta Balmasedako baserririk esanguratsuenak zeharkatzen dira, bai eta El Juque mendi publikoaren baso-masa zabala ere; bertan, bertoko espezieak eta harraparien fauna babestua daude.
BTT 2. Distantzia: 24,45 km. Maila beltza
Ibilbide luzea da; El Arroyo auzoko bidetik irten eta La Garbeara doa bidea, "Enkarterriko balkoira", eta Artzentalesko mugekin tontorrera iritsi ondoren, Kolitza deiadar-mendira bideratuko gaitu. Aterpetxea igaro ondoren, berriro ere egiten du bideak behera, Pico Güezi eta Sabugal gailur-lerrotik, zirkulua osatuz, Balmasedako hiribildura heldu arte.
BTT 3. Distantzia: 12,20 km. Maila gorria
Ibilbidea Arbaltzara menditik zehar doa, Celadilla mendilerroa ikusi arte: goi-larreak dituen paraje ederra, antzinako guduen historiaz josita, putzu eta basoekin; bertatik, Enkarterriko ekialdearen bista bikainak daude, bai eta Mena eta Aiala haranekoak ere.

Nordic Walking ("Lotu zapatilak, hartu makilak eta…")

Informazio gehiago:

NW 1. Garbea bidea. Distantzia: 15,02 km. Maila gorria
Balmasedatik hasi eta Pandozales herrixka ederrera doa; bertan dago San Isidro ermita. Bertatik, La Porqueriza jolas-eremura doa eta, gailur-paseo eder batetik zehar, Balmasedara itzultzen da, La Garbea mendi-hegaletatik, basoz estalita, eta hiribildura La Magdalena paseoan zehar iritsiko gara.
NW 2. Kolitza bidea. Distantzia: 20,03 km. Maila beltza
Ibilbide hau, Pandozalesetik igaro ondoren, baso-pistatik zehar Kolitza mendiko ohiko basera doa; handik igoko gara, mendi-bidetik, eta beste ibilbide alternatibo bat hartuko dugu, Pico Güezi eta Sabugal goialdeak zeharkatuz, besteak beste.
NW 3. Sebe-a Umaran-etako bidea. Distantzia: 5,61 km. Maila berdea
Paseo honek hiribildua Kadagua ibaiaren eskuinaldetik zeharkatzen du eta landa-bideen zirkulua osatzen du, landazabalak eta Zornotza eta Arbiz etxaldeak zeharkatuz.
NW 4. Cardeli-a bide Haitza. Distantzia: 6,83 km. Maila urdina
Hegal erdiko guneetatik doa paseoa, belardi eta basoetatik, eta ehun bat urteko hainbat espezietako zuhaitzetatik igarotzen da, Zoko Maitean, eta historian garrantzia duten beste batzuen artean, La Piedra gaztelUan.

Oso eskuragarria · Eskuragarria · Zorrotza · Oso zorrotza

RUTAS

Cualquier época del año es adecuada para explorar muchos de los tesoros naturales que están presentes en el municipio de Balmaseda. La villa ofrece múltiples rutas en su entorno para descubrir su interesante patrimonio.

Senderos ("Caminante no hay camino…")

Más información:

GR-123. Etapa: Balmaseda-Gordexola. Distancia: 21,52 km.
El sendero GR-123 es conocido como la Vuelta a Bizkaia. Esta etapa parte de Balmaseda y asciende hasta la sierra Celadilla, que ofrece una panorámica espectacular de las Encartaciones, Valle de Mena y Valle de Aiala. A continuación desciende hacia el río Ayega y discurre junto a su orilla bajo la fresca sombra del bosque de ribera. Tras un tramo de ascenso por pinar, perderá altura de nuevo hasta alcanzar el río Herrerías, junto al que se irá acercando a los palacios y casas señoriales de Gordexola.
GR-123. Etapa: Balmaseda-Kolitza. Distancia: 6,07 km.
Desde la iglesia de San Severino hay que dirigirse, por la parte trasera del Ayuntamiento, hacia el barrio de Pandozales. Tras pasar junto a los antiguos caseríos, viñas de txakolí y la ermita de San Isidro Labrador, se continúa la ascensión siguiendo las marcas blancas y rojas, entre plantaciones de coníferas, hasta la cima coronada por la ermita. Bajo su cumbre, un refugio municipal abre sus puertas durante los fines de semana.
GR-281. Etapa: Bolunburu-Traslaviña. Distancia: 21,11 km.
Parte del área recreativa de Bolunburu, en Zalla, y se dirige hacia la villa de Balmaseda, atravesando el barrio de La Herrera y el conjunto monumental de La Mella. Irá ascendiendo por el camino que lleva al Kolitza. A media ascensión tomará el desvío hacia La Porqueriza. Desde este área recreativa parte una pista que permitirá alcanzar la cima de La Garbea -Balcón de Las Encartaciones-. Desde este punto, el recorrido comienza a descender en dirección a La Estación y al barrio de Traslaviña. Compartirá parte del trazado con el Viejo Camino de Santiago.
Ruta: La Herrera-La Encartada (Camino de Santiago). Distancia: 5,80 km.
Este es un bonito paseo por las riberas del río Kadagua, que además de cruzar la Villa, conduce aguas arriba hasta la Fábrica de Boinas "La Encartada" y aguas abajo, por bidegorri, al barrio de La Herrera con su casa torre de Terreros, palacio e iglesia de los Urrutia, etc.

BTT ("Móntate en tu bicicleta de montaña…")

Más información:

BTT 1. Distancia: 16,03 km. Nivel azul
Vuelta circular a la Villa por pistas a media y baja ladera, recorriendo los barrios rurales y caseríos dispersos más significativos de Balmaseda, y la amplia masa forestal del monte público del Juque, donde abundan especies autóctonas y fauna protegida de rapaces.
BTT 2. Distancia: 24,45 km. Nivel negro
Gran ruta, que partiendo por el camino del barrio del Arroyo, se dirige a La Garbea, "Balcón de Las Encartaciones", y, tras cumbrear por los límites con Artzentales, conduce al bocinero monte Kolitza. Tras pasar su refugio, desciende nuevamente por el cordal de Pico Gueci y el Sabugal, completando el circulo hasta llegar a la Villa de Balmaseda.
BTT 3. Distancia: 12,20 km. Nivel rojo
Recorrido que transita por el monte Arbaltza y descubre la Sierra de Celadilla: un bello paraje de pastos de altura, cargado de historias de antiguas batallas, con pozas, bosques y desde donde se contemplan unas fabulosas vistas sobre las Encartaciones orientales, así como de los Valles de Mena y Aiala.

Nordic Walking ("Átate las zapatillas, coge los bastones…")

Más información:

NW 1. Ruta Garbea. Distancia: 15,02 km. Nivel rojo.
Parte de Balmaseda hacia la bonita aldea de Pandozales donde se encuentra su ermita de San Isidro. Desde allí se dirige cómodamente al área recreativa de La Porqueriza y, por un bonito paseo de cumbrera, se vuelve de nuevo a Balmaseda por las faldas del monte La Garbea, cubierto de foresta, y se llega a la Villa por el paseo de La Magdalena.
NW 2. Ruta Kolitza. Distancia: 20,03 km. Nivel negro
Ruta que, tras pasar por Pandozales, se dirige por pista forestal hasta la base del mítico monte Kolitza, el cual se ascenderá por su senda montañera, para retornar por otra ruta alternativa atravesando los altos de Pico Gueci y Sabugal, entre otros.
NW 3. Ruta Sebe de Umaran. Distancia: 5,61 km. Nivel verde
Paseo que recorre la Villa por la margen derecha del río Kadagua y que completa el circulo por caminos rurales, atravesando zonas de campiña y las caserías de Zornotza y Arbiz.
NW 4. Ruta Peña Cardeli. Distancia: 6,83 km. Nivel azul
Paseo por zonas de media ladera entre caseríos, prados y bosques, pasando junto a árboles centenarios de especies diversas en el Zoko Maitea y otros de relevancia histórica en el Castillo La Piedra.

Muy asequible · Asequible · Exigente · Muy exigente